

D. ARTURO GOLDARACENA ASA, ALCALDE-PRESIDENTE DEL M.I. AYUNTAMIENTO DE LA M.N. Y M.L. CIUDAD DE TAFALLA (NAVARRA)

HACE SABER: Que dado el riesgo de incendio que se incrementa en el período estival y estando actualmente en vigor la Orden Foral 222/2016, de 16 de junio por la que se regula el uso del fuego en suelo no urbanizable para la prevención de incendios forestales, estando conforme a esta normativa foral en época estival totalmente prohibido el uso del fuego en entornos forestales, siendo además competencia municipal velar por la seguridad, salubridad y ornato de las parcelas urbanas dentro de nuestro municipio, **queda terminantemente prohibido el uso del fuego en general y por ende la utilización de barbacoas, camping-gas, etc del 15 de julio hasta al 30 de septiembre en las zonas de la vía pública que colindan con el Pinar de Santa Lucía, de las siguientes calles: Artajona, Concepción, Santa Lucía, Belena de San Nicolás, Juan de Ancheta, La Peña, Alto de la Muralla y Poyo.** Tampoco se podrá hacer fuego en ninguno de los caminos que circunvalan el propio pinar.

Por ello se solicita la colaboración de la ciudadanía para preservar del fuego el Pinar de Santa Lucía, advirtiendo que la desobediencia a lo estipulado en este Bando por Alcaldía conllevará la sanción pertinente.

Para autorizar la realización de barbacoas en la vía pública, el espacio deberá reunir las siguientes condiciones:

1. Que la zona esté pavimentada.
2. Que el utensilio en el que se realice el fuego sea barbacoa, bidón o chapa, cuidando siempre el pavimento sobre el que se realiza.
3. El material de combustión deberá ser sarmiento, carbón vegetal o butano.
4. La distancia de seguridad entre el fuego y los coches y mobiliario urbano, será de 3 m.
5. La limpieza de la zona será responsabilidad exclusiva de quien organice.
6. Una de las personas organizadoras deberá identificarse como responsable de la actividad, en el supuesto de que sea requerido para ello por los servicios municipales.

Lo que se publica por BANDO para general conocimiento.

Tafalla, 4 de agosto de 2017

Arturo Goldaracena Asa
Alcalde de Tafalla

TABLÓN DE ANUNCIOS MUNICIPAL.-

ON ARTURO GOLDARACENA ASAK, TAFALLA HIRI O.N. ETA O.L.EKO UDAL O.I.AREN ALKATE-PRESIDENTEAK

JAKINARAZTEN DU: Uda garaian areagotzen den sute arriskua kontuan hartuta eta baso suteak ekiditeko zoru ez urbanizagarrietan suaren erabilera arautzen duen gaur egun indarrean dagoen ekainaren 16ko 222/2016 zenbakidun agindu forala dela eta, gure herrian dauden hiri lursailen segurtasun, garbitasun eta apaindura ziurtatzea udal konpetentzia izanik, **erabat debekatuta dago suaren erabilera, hala nola barbakoak, kanping-gas etabarren erabilera uztailearen 15etik irailaren 30era Santa Luziako pinudiaren inguruan dauden honako kaleetan: Artajona, Concepción, Santa Luzia, Belena de San Nicolás, Juan de Ancheta, La Peña, Alto de la Muralla eta Poyo.** Honetaz gain ez da pinudia bera inguratzen duten bideetan ere horrelakorik onartuko.

Esandakoagatik, Santa Luzia pinudia mantentzeko herritarren laguntza eskatzen da, eta abisua luzatzen da alkatetzaren bando honetan adierazten dena betetzen ez duenari dagokion isuna ezarriko zaiola.

Bide publikoan barbakoak egin ahal izateko baimena jasotzeko espazioak honako baldintzak bete beharko ditu:

- 1.- Zonaldea zolagaindua egotea
- 2.- Sua egiteko erabiliko den tresna barbakoak, bidoi edo txapa izatea, beti ere zola zainduz.
- 3.- Erregaia xirmendu, ikatz begetala edo butanoa izan beharko du.
- 4.- Sua eta kotxe edo kaleko altzariekiko segurtasun distantzia hiru metrotakoa izan beharko du.
- 5.- Zonaldearen garbiketa antolatzen duenaren ardura osoa izango da.
- 6.- Antolatzaileetako pertsona bat ekintzaren arduradun bezala identifikatu beharko da, udal zerbitzuek hala eskatzen badute.

BANDOan argitaratzen dena denon ezagutzarako.
Tafallan, 2017ko abuztuaren 4an.

Arturo Goldaracena Asa
Tafallako alkatea

TABLÓN DE ANUNCIOS MUNICIPAL.-

